



5. EGITEN ETA EKITEN IKASI

Sarrera

Egungo errealitateak bi ezaugarri garrantzitsu ditu. Batetik, elkarrekiko mendekotasuna gero eta handiagoa da munduan, eta, bestetik, natura aldakorra da (eta gero eta azkarrago ari da aldatzen). Faktore askok aldatzen dute errealitatea, eta gure **“parte hartze aktiboa”** faktore horietako bat izan daiteke.

Lehen, aldaketa handiak hautemateko, zenbait belaunaldi behar ziren; egun, ordea, belaunaldi beraren barruan gero eta azkarrago izaten diren aldaketa bizien lekuko gara. Gaur, beharrezkoa da, inoiz baino gehiago, ikasleek errealitateaz eta elkarrekiko mendekotasunaz hausnartzea, errealitate hobeak imajinatzea/amestea eta adierazpen/egite horretan parte hartzea, betiere aurrera eramandako ekintzen eragina ebaluatuz.

Horregatik, pertsonen hezkuntzaren alderdi giltzak bilakatu dira ikuspegi orokorra garatzea, aldaketa kudeatzea eta aldaketa horretara egokitzea. **Ekitea** beharrezkoa da, bizitzan modu aktiboan eragiteko, eta ondorioz hezkuntzan **ekimen ekintzaileen konpetentzia** garatzea ezinbestekoa bilakatu da.

- **Ekintzailetzaren definizioa eta ezaugarriak**

Ekimen ekintzailea diogunean ideiak ekintza bihurtzeko pertsona batek duen konpetentziaz ari gara. Ekintzailea aldaketa eta eraldaketa eragiten duen pertsona da. Arazo bati aurre egiterakoan edo egoera–problema bat ebazterakoan ikuspegi originala eta berritzailea sortu eta eragiten duena. Proiektuak sortu, haietan sinetsi eta beraien alde arriskatzeko joera duena.

Ekintzaile hitza berehala lotzen da enpresa-munduarekin. Europako Kontseiluaren eta Parlamentuaren gomendioetan espresuki adierazten da *Ekimenerako zentzua eta espiritu enpresa* bezala definituz. Baina hezkuntzaren xedeen ikuspegitik sormenak eta ekimenerako zentzuak dimentsio zabalagoa hartu behar du. Ikasleak derrigorrezko eskolaldiaren amaierarako bizitzako edozein esparrutan eta egoeratan ekintzaile, parte hartzaile eta eragile izateko prestaketa eta konpetentzia garatua izan behar du.

Konpetentzia horrek zerikusia du, besteak beste, ideiak ekintza bihurtzearekin, sormenarekin, berrikuntzak eragitearekin, erabakiak eta ardurak hartzearekin, arriskuak onartzearekin, helburuak lortzeko proiektuak taldean planifikatu eta kudeatzearekin.

Jarrera ekintzailea erakusten duten pertsonak, besteak beste, ezaugarri hauek izaten dituzte:

Ideiak sortzen dituzte. Helburua argiak izaten dituzte, eta horiek lortzeko motibazioak eraginda, informazioa aztertu, interpretatu, gorde, eta erabiltzen dute, ideia berriak sortzeko. Era honetan, ezagutza eraikiz doaz, edo beste modu batean esanda, ikasten ikasi konpetentzia garatuz doaz.

Komunikatzaile onak dira. Sortutako ideiak aurrera eraman behar horretan pertsona arteko harremanak funtsezkoak jotzen dituzte. Harreman horiek bideratzeko eta helburuak lortzeko, komunikazio trebeziak garatzen dituzte:

ahozkoak, idatzizkoak, baliabide artistikoak edota IKTetako baliabideak. Komunikatzen ikasi kompetentziaren garapena gauzatzen dute.

Elkarlanean aritzen dira. Bakarkako lanak egiten dituzte baina elkarlanaren eraginkortasunean sinesten dute. Elkarlanean aritzeko beharrezkoa da taldean lan egiten ikastea, parte hartze demokratikoa bultzatzea, entzuten jakitea, enpatia eta asertibitatea izatea, negoziatzen jakitea, gatazkak bideratzea, hitz batez elkarrekin bizitzen ikastea.

Izaera orekatua eta autonomia izaten dute. Ekimen prozesuari aurre egiterakoan norbere izaerari eusten diote. Autonomia, ekimena, lidergoa, oreka pertsonala, autoestimua, pro-aktibitatea, baikortasuna, kemena, iraunkortasuna... bezalako ezaugarriak erakusten dituzte. Norbera izaten ikasi kompetentzia garatzen dute.

Planifikatzaile eta kudeatzaile onak dira. Lehenik eta behin motibazioa, ideiak martxan jartzeko grina erakusten dute, ingurukoengan eraginez. Helburuak finkatzen dituzte, baliabideak antolatu eta eskuratzen dituzte, arriskuak hartzen dituzte, erabakitakoa gauzatzen dute, balioesten dute eta hobekuntzak erabakitzen dituzte. Zerbaitetan nabarmentzen badira, batez ere, ideiak gauzatzen eta berrikuntzak eragiten izaten da. Egiten eta ekiten ikasi kompetentzia garatzen dute.

Ekintzaileek sinetsi egiten dituzte beren proiektuek eta haiengatik arrieskatzeko joera izaten dute. Hala ere, ezin da ahaztu, kontuan hartu behar dela ekintzak gizaterian izango duen eragina. Garrantzitsua da azpimarratzea ekimen ekintzailea kompetentziak (errealitatearen bilakaeran modu aktiboan parte hartzeak) eta pertsonaren barneko giza garapenak batera joan behar dutela beti. Beraz *Egiten eta ekiten ikasi* kompetentzia guztiz lotuta joan behar du Norbera izaten ikasi eta Elkarrekin bizitzen ikasi kompetentziarekin

Egiten eta ekiten ikasiteko kompetentzia orokorrak

Ekintzaile izaten ekinez ikasten da. Proiektuak, problemak, eginkizunak burutuz, ideiak ekintza bihurtzen ikasten da. Baina horretarako prozesu jakin bat aplikatu behar da.

Euskal Curriculumean kompetentzia hori Egiten eta ekiten ikasi izenez ezagutzen da. Lau fase dituen ekite prozesu dinamikoa, ondoz ondokoa eta etengabea proposatzen du: **Fase analitikoa, Sortze fasea, Berritze fasea eta Ebaluazio fasea.** Fase horiek "Egiten eta ekiten ikasi" hezkuntza kompetentzia orokorraren bost azpikompetentzia orokor hauek ematen dituzte:

5.1. ANALISIA: informazioa hartzea eta gordetzeari dagozkion kompetentziak

Errealitateari buruzko informazioa hartzea
Errealitatea aztertzea eta ulertzea
Errealitatea eztabaidatzea

5.2. SORMENA: Ideia berriak eta konponbideak lantzeari dagozkien kompetentziak

Alternatibak planteatzea
Alternatibak ebaluatzea
Alternatiba egokiena aukeratzea

5.3. BERRIKUNTZA: Ideiak gauzatzeari dagozkien kompetentziak


Errealitate bat gauzatzeko konpromiso pertsonala hartzea
 Plangintza
 Ekintza
 Desbideratzeak jarraitzea eta zuzentzea

5.4. EBALUAZIOARI dagozkien kompetentziak

Egindako ekintzen emaitzei buruzko informazioa biltzea
 Aurreikusitako eta lortutako helburuak erkatzea
 Aurreikusi gabeko eraginak ebaluatzea
 Ondorioak ateratzea: aukerak planteatzea

5.5. EKITE PROZESUAREN APLIKAZIOARI dagozkien kompetentziak

Esparru pertsonal -indibidualean ekitea
 Gizarte eta natura esparruan ekitea
 Hezkuntza eta auto-ikaskuntza gabeziei erantzutea
 Bokazioa
 Lan munduan sartzeari
 Enpresa sortzea – Auto-enplegua



Ikuspegi ekintzailea Txanela Proiektuan

Txanela proiektuak, besteak beste, ezaugarri hauek ditu:

- ◆ Kompetentzien garapenean oinarritzea.
- ◆ Ikaskuntza esanguratsua eta ikasle aktiboa bideratzea.
- ◆ Balioen eta jarrerren hezkuntzarekin konprometitua izatea.
- ◆ Ikuspegi globalizatua eta eraikitzailea eskaintzea.
- ◆ Ikasleen proiektuak gauzatzera bideratua egotea.
- ◆ Ikastaldearen kudeaketa askotarikoa bultzatzea (elkarlana, bakarkako lana...).

Ezaugarri horiek aintzat hartuz, Txanela Proiektuko unitate guztien azterketa egin da. Horretarako *egiten eta ekiten ikasi* kompetentzia prozesu bat kontsideratu da, eta prozesu horren faseen garapena nola bideratzen den aztertu da. Ondorio bezala, garbi ikusi da *egiten eta ekiten ikasi* kompetentzia garatzeko aukera ezin hobea eskaintzen dutela material horiek, besteak beste, fase guztien garapenerako aukerak daudelako, kompetentzia orokorren garapena ahalbideratzen dutelako eta ikaslearen protagonismoa eta parte hartzea bultzatzen dutelako.

Azpimarratzekoak dira ikasmaterial horietan proposatzen diren **ikasleen proiektuak**. Proiektuak burutzea, estrategia egokienetako bat da, *egiten eta ekiten ikasi* kompetentzia garatzeko. Ikasleek, egoerak aztertu ondoren, ideiak sortu, adostu eta gauzatzeko aukera dutel, eta horrela ekimena, autonomia eta erantzukizuna garatzen baitute.

Bestalde ekintzailetza sustatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak argitaratutako *Hasi eta Hazi* ikasmaterialen ekarpena aztertu da. Material horiek ere prozesua osatezen duten fase ezberdinetarako jarduerak proposatzen dituzte. Faseak dira: **taldea sortu, ideiak eduki, antolatu, ebaluatu eta komunikatu**.

Egiten eta ekiten ikasi garatzeko prozesuan eta *Hasi eta Hazi* materialetan bideratzen den prozesuaaren artean antzekotasunak ikusirik, nolabaiteko parekotasun bat eskaintzen da unitate didaktiko bakoitzeko ikasleen proiektua aztertzerakoan. Komenigarria da fase horiek ezagutzea eta barneratzea irakasleok ikasleen jarduna bidera dezagun.

- ***Egiten eta ekiten ikasi eta hasi eta haziko* faseen arteko lotura**

EGITEN ETA EKITEN IKASI	HASI ETA HAZI
<p>Analisisa: Informazioa hartzea eta gordetzea.</p> <p>Sormena: Ideia berriak eta konponbideak lantzea.</p>	<p>Asmatu</p>
<p>Berrikuntza: Ideiak gauzatzea.</p>	<p>Planifikatu</p> <p>Egin</p> <p>Komunikatu</p>
<p>Ebaluazioa</p> <p>Aplikazioa</p>	<p>Ebaluatu</p>



Ondoren *Egiten eta ekiten ikasi* kompetentzia garatzeko prozesua, unitate didaktiko batetan, fasez-fase, nola islatzen den eskaintzen da.

III zikloko adibidea

6.5. Proiektua: MATERIAREN INGURUKO LAN MONOGRAFIKOA OSATU ETA AURKEZTU, EKINTZAILETZA IKUSPEGITIK

Proiektuaren helburua

Ikasleen proiektuaren helburua hauxe da: *Materiaren inguruko lan monografikoa osatu eta aurkeztea*; hau da, liburuko testuetatik eta zuzeneko esperientziatik jasotako informazioetatik abiatuko dira, talde elkarrizketaren eta eztabaidaren bitartez argituko dituzte hainbat gauza, eta horiek ulertu ondoren, **elkarlanean egindako planifikazioari jarraituz, ikasle bakoitzak, materiari buruzko lan monografikoa osatu eta aurkeztea.**

Prozedura esanguratsuenak

Proiektu honetako prozedura esanguratsuenak hauexek dira (proiektu-faseen arabera sailkatuta eta ordenatuta):

Analisi eta sormen fasea

- ★ Proiektuan landuko denaren inguruko ezagutzak martxan jarri (materia, laborategia, eztabaidatzeko prozedurak...)
- ★ Proiektuaren eta unitatearen arteko loturak aztertu.
- ★ Liburuko testuetatik eta beste zenbait iturrietatik informazioa eskuratu (Internet, entziklopediak...) eta hipotesiak sortu.

Berrikuntza fasea: planifikazioa

- ★ Zein esperientzia egingo dituzten hautatu.
- ★ Esperimentuak egiteko eta txostena antolatzeko jarraibideak eta erregistroak adostu.
- ★ Denbora antolatu.
- ★ Zein baliabide beharko dituzten aurreikusi.
- ★ Laborategiaren inguruko tresneria eta materialak antolatu.
- ★ Laborategiko zereginak banatu.
- ★ Talde-eztabaidak antolatu.

Berrikuntza fasea: Ideiak gauzatzea:

- ★ Esperimentuei buruzko hipotesiak egin, frogatu, ondorioak atera eta erregistratu.
- ★ Nork bere lan monografikoa osatu: materiala bildu eta ordenatu, aurkibidea osatu...

Berrikuntza fasea: Komunikazioa

- ★ Nork bere iritziak azaldu eta argudiatu, ahoz nahiz idatziz.
- ★ Txostenaren aurkezpen argia egin: azala, izenburuak, argazkiak, marrazkiak...

Ebaluazioa eta aplikazioa:

- ★ Proiektua bakarka balioetsi eta ondorioak atera: lanak (laborategian, planifikatzen...) gogoia, gozamina, izandako zailtasunak, ikasitakoa...).
- ★ Bakarka balioetsitakoa taldean adierazi, eta emandako puntuazioak arrazoitu.

Prozeduren, jardueren eta gaitasunen taula

Ondoren ageri den taulan jaso ditugu proiektu-fase bakoitzean egiten diren prozedurak, horiek garatzeko Txanelak eta Hasi eta Hazi proiektuek eskaintzen dituzten jarduerak eta lanketa honetan sustatzen diren gaitasunak.

6.5 MATERIAREN LAN MONOGRAFIKOA OSATU ETA AURKEZTU			
FASEA	PROZEDURAK	GAITASUNAK	JARDUERAK
ANALISIA ETA SORMENA	Proiektuan landuko denaren inguruko ezagutzak martxan jarri (materia, laborategia, eztabaidetarako prozedurak...)	Analisirako gaitasuna Pentsamendu kritikoa Eztabaidarako gaitasuna Autoestimua Ahozko komunikazioa	G6.5u, 1.j./ <i>Azalaren behaketa eta elkarrizketa.</i> G6.5u, 2.j./ <i>Komikia eta aurrezagutzak</i> G6.5u,3.j./ <i>Proiektuaren aurkezpena</i>
	Proiektuaren eta unitatearen arteko loturak aztertu.	Analisirako gaitasuna Pentsamendu kritikoa Eztabaidarako gaitasuna Autoestimua Ahozko komunikazioa	G6.5u,4.j. / <i>Ikasnorabidea.</i> G6.5u, 5.j./ <i>Txoko zuria</i> G6.5u, 6.j., 7.j., 8.j.,9.j., 14.j./ <i>Zientzia eta pentsamendua.</i>
	Liburuko testuetatik eta beste zenbait iturrietatik informazioa eskuratu eta sintetizatu (Internet, entziklopediak ...)	Analisirako gaitasuna Sormena Pentsamendu kritikoa Eztabaidarako gaitasuna Autoestimua Ahozko komunikazioa Elkarlana Idatzizko komunikazioa Ekimena Elkarlana Diziplina Hobetu nahia	G6.5u, 13.j./ <i>Materia.</i> G6.5u, 16.j., 17.j., 23j., 25j., 26j., 27j., 28j., 31j., 33j., 36j., 39j., 42j., G6.5u, 24.j./ <i>Zientzia museoak: bisita birtualak.</i> G6.5u, 37-38.j./ <i>Marikalambre</i> G6.5u, 34.j./ <i>Materials</i>
BERRIKUNTZA: PLANIFIKAZIOA	Zein esperientzia egingo dituzten hautatu	Ahozko komunikazioa Idatzizko komunikazioa Elkarlana Eztabaidarako gaitasuna Erabakiak hartzea Parte-hartze demokratikoa Ekimena	Ikaslearen liburua 15,19,20,21,24,25,29,32,40, 46. orrialdeak.
	Esperimentuak egiteko eta txostena antolatzekeo jarraibideak eta erregistroak adostu	Analisirako gaitasuna Sormena Ahozko komunikazioa Idatzizko komunikazioa Parte-hartze demokratikoa Eztabaidarako gaitasuna Ekimena Erabakiak hartzea Nork bere burua onartzea Hobetu nahia	G6.5u, 18.j./ <i>Neurketak eta esperimentuak</i> Lan-koadernoak 13.1, 11- 16- 17- 20- 21- 22. orrialdeak.

	Laborategiaren inguruko antolaketa adostu	Analisirako gaitasuna Sormena Eztabaidarako gaitasuna Ahozko komunikazioa Idatzizko komunikazioa Erabakiak hartzea Ekimena Elkarlana Diziplina Hobetu nahia Parte-hartze demokratikoa Gatazkak konpontzea	G6.5u, 12.j./ <i>Hitz-errota: eztabaidak.</i> Lan-koadernoan 13.1, 8., 9. or. G6.5u, 19.j./ <i>Eztabaidan: arauak.</i>
	Talde eztabaidak antolatu.	Analisirako gaitasuna Sormena Ahozko komunikazioa Eztabaidarako gaitasuna Gatazkak konpontzea Autoestimua	G6.5u, 12.j./ <i>Hitz-errota: eztabaidak.</i>
BERRIKUNTZA: EGIN	Esperimentuei buruzko hipotesiak egin, frogatu, ondorioak atera eta erregistratu.	Analisia Sormena Idatzizko komunikazioa Ahozko komunikazioa Elkarlana Ekimena Autonomia Erantzukizuna Borondatea Autoestimua Hobetu nahia	Ikaslearen liburua 15,18, 19,20,21,24,25,29,32,40, 46. orrialdeak.
	Nork bere lan monografikoa osatu: materiala bildu eta ordenatu, aurkibidea osatu...	Analisia Sormena Idatzizko komunikazioa Autonomia Erantzukizuna Borondatea Autoestimua Hobetu nahia	Ikaslearen liburua 27, 33,39,54 G6.5u, 47.j./ <i>Proiektua gauzatzen.</i>
BERRIKUNTZA: KOMUNIKATU	Nork bere iritziak azaldu eta argudiatu, ahoz nahiz idatziz.	Analisirako gaitasuna Sormena Ahozko komunikazioa Idatzizko komunikazioa Eztabaidarako gaitasuna Autonomia Autoestimua Borondatea Hobetu nahia	Lan-koadernoan 13.1; 12, 13, 14, 15,18,19,23, 24, 25, 22. orrialdeak G6. G6.5u, 45.j./ <i>Iritzi artikulua</i> G6.5u, 46.j./ <i>Hiztunak eta hizkuntzak</i> G6.5u, 47.j./ <i>Bertsoz</i>
	Txostenaren aurkezpen argia egin: azala, izenburuak, argazkiak, marrazkiak...	Gizarte-ardura (asertibitatea) Idatzizko komunikazioa Sentsibiltate estetikoak Borondatea, Sormena Hobetu nahia	G6.5u, 49.j./ <i>Proiektua gauzatzen.</i> G6.5u, 35.j./ <i>Artelana</i>

EBALUATU ETA APLIKATU	Proiektua bakarka balioetsi eta ondorioak atera: lanak (laborategian, planifikatzen ...), gogoia, gozamina, izandako zailtasunak, ikasitakoa....	Analisisirako gaitasuna Ahozko komunikazioa Idatzizko komunikazioa Eztabaidarako gaitasuna Borondatea Hobetu nahia Okerrak onartzen ikastea Ikasi eta aldatu nahia	G6.5u, 48.j./ <i>Eztabaida formala</i> G6.5u, 50.j./ <i>Sintesia</i> G6.5u, 3.j./ <i>Proiektuaren aurkezpena</i> Lan-koadernoia 10. orria
	Bakarka balioetsitakoa taldean adierazi, eta emandako puntuazioak arrazoitu.	Eztabaidarako gaitasuna Elkarlana Analisisirako gaitasuna Ahozko komunikazioa Hobetu nahia	G6.5u, 50.j./ <i>Sintesia</i>

Faseen deskribapena

ANALISI ETA SORMEN FASEA

Proiektuan landuko denaren inguruko ezagutzak martxan jarri (materia, laborategia, eztabaidetarako prozedurak...)

Txanela 6. mailako 5. unitate honetan, azalaren irudietatik beretik eskaintzen da unitatean landuko diren gaien inguruko aurrezagutzak martxan jartzeko aukera –zientzialariak laborategi batean eztabaidan–; unitatearen izenburuak ere bide horretan jartzen ditu ikasleak –*saiatze horretan ezin gelditu*–, eta komikiaren gaien murgiltzen dira, azkenik –sukaldean, zientzia eta pazientzia–, eta horrekin ere horixe lortu nahi dugu. Hau da, zientziaz, laborategiez, esperimentazioaz, materia behatzeaz eta ondorioak ateratzeaz, prozedura zientifikoaz... hausnartzeari eta eztabaidatzeari ekiten zaio talde txikietan. Eztabaida horien ondoren, zer landuko ote den eta zein proiektu egin daitezkeen igartzeko eskatzen zaie ikasleei. Ondoren, unitate honetako proiektua aurkezten duen jarduera agertzen da: materiaren inguruko lan monografikoa egitea.



Proiektuaren eta unitatearen arteko loturak aztertu

Proiektua aurkezteko jardueran, lehenengo esaldian bertan agertzen da unitateko gaien eta proiektuaren arteko lotura. Unitateko gaia materia aztertzea eta ezagutzea da, eta proiektuan, materiari buruzko lan monografikoa egitea eskatzen da. Beste unitate guztietan bezala, oraingoan ere, ikasnorabidea dugu, unitatearen garapenari jarraituz, proiektuarekiko loturak identifikatzeko tresna.

Liburu artean jardueran eta irakurgaietako *Isilpeko jakintzak eta kondairak* testu sortan materiaren eraldaketaren alderdi magiko eta fantastikoenari heltzen zaio, literaturaren eta irakurketa ludikoaren eremuan lerratuz. Horren helburua gaiarekiko interesa sortzea da, eta aurrerago irakurketa-esperientzien inguruan egingo duten talde elkarrizketarako girotzen hastea.

Unitate honetan, proiektua egin ahal izateko, garrantzi berezia dute zuzeneko esperientziak. **Hipotesiak egin, prozedura gauzatu eta ondorioak atera ondoren, txosten zientifiko batean bildu behar da egindakoa eta ikasitakoa.**

Bestalde, **talde elkarrizketa eta eztabaida ezinbesteko baliabideak dira.** Horiek lantzek eta ebaluatzeko, hainbat egoera eta jarduera aurkitzen dira

unitatean sakabanaturik, *hitz-errota: eztabaidak, Zientzia: esperimantazioa eta teoria, Zientzia eta pentsamendua, Materia, eta abar.*

Liburuko testuetatik eta beste zenbait iturritatik informazioa eskuratu eta sintetizatu (Internet, entziklopediak, zientzia museoak...)



BARTZELONAKO ZIENTZIA MUSEOAN PLASMA BOLABATIKUSI NIEN...

NIK DONOSTIARDAN! BEIRAZKO BOLAHANDI BAT DA, ETA BARRUANTXI-MISTATXIKIAK DAUZKA, KOLORAZKOAK...

ESKUJAGAINEN JARRIETATXIMISTAK HATZ PUNTETARAJOATEN DIRA...

SENTSAZIOARRAROA DA ZER BAIT GERTATU BEHAR ZAIZULADIRUDI, BAINAEZ DA EZER GERTATZEN BELDURPIKKA BATEMATENDU... BAINABESTE EZEREZ!

Jarduera

Zientzia-museo bat bisitatzeak lagunduko lizuke materiari eta, oro har, fisika eta antzerako zientzien aztergaiari buruzko hainbat informazio eta bitxikeria ezagutzen eta ulertzen. Eta hurbilean ez badaukazu zientzia-museorik, ez kezkatu: beti duzu bisita birtual bat egiteko aukera.

Interneten bitartez mundu osoko zientzia-museoetako web-orriak kontsultatu ahal izango dituzu eta orriak ondo erabiltzen ikasiz gero, museo horietan sortzeak ere lortuko duzu.

- Zer informazio aurkituko duzula inuitzen zaizu horko esteka horietan klikatuz gero?

23

Txosten zientifikoa osatzeko, aurretik informazioa eskuratu behar da, hipotesiak planteatu, esperientziak egin eta ondorioak atera.

Informazioa eskuratzeko bide bat baino gehiago proposatzen dira. Batetik, ikasleen liburuan haien zat bideratutako testuak daude. Bestetik, Interneten, entziklopedietan edo beste zenbait liburutan informazioa eskuratzeko eskatzen da. Testu horiek sakon lantzen dira. Irakurritako informazioan, zientzian hizkuntza zehatza erabiltzeak zer garrantzi duen lantzen da, eta horretarako, testuak aztertzen dira eta lan-koadernoko jarduerak egin. Informazioa sintetizatzen trebatzen dira, eskematan bilduz. Zientzien alorrean sarritan topatzen den kausa-ondorio erlazioan oinarritutako testuak ere lantzen dira.

Web_orri interesgarri batzuek aukera ematen dute ikasleek informazioa eskuratzeko eta gelakideekin konpartitzeko:

<http://www.educared.pe/estudiantes/experimentos/inicio.asp?id=1>

<http://www.rena.edu.ve/primeraetapa/experimentos/swf/HagamosExperimentos.swf>

<http://www.curiosikid.com/view/index.asp?pageMs=4854&ms=158>

Beste informazio iturri garrantzitsua zera da, eguneroko bizitzan ikus daitezkeen egoera aldaketa arruntak behatzea eta proposatzen diren esperimantazioak egitea.

Lanketa hauek guztiak bakarkako lana eta taldeetako lana konbinatuz eta talde handian partekatuz egitea proposatzen da.

Txanelako unitate guztietan ingelesez egiteko jarduera bat proposatzen da. Oraingoan jarduera hori oso loturik dago informazioa eskuratu eta

sintetizatzearekin. Interneteko helbide bat eskaintzen da <http://www.bbc.co.uk/schools/ks2bitesize/science/materials.shtml> lanketa hori egiteko.

Hor hainbat materiarekin esperimentuak birtualki egiteko aukera dago, eta materiaren zenbait propietate eta disolbagarriak diren zenbait substantzia aztertzen dira.

Aipatutako jarduera horiek guztiak *egiten eta ekiten ikasiri* loturiko **analisi**a, hau da, **informazioa hartzea eta gordetzea** eta **sormena** lantzeko bidea eskaintzen dute, lehenik informazioa bilduz, gero aztertuz eta sintetizatuz, ondoren helburua betetzeko ahalmenak balioetsiz eta hobetzeko alternatibak planteatuz.

BERRIKUNTZA FASEA: PLANIFIKAZIOA

Behin errealitatea aztertu eta alternatibak planteatuta **ideiak gauzatzen** hasteko unea da. Horretarako lehenik, burutuko den proiektuaren aldeko **konpromisoa hartuko** da, eta aurrera eramateko **plangintza** osatzen hasiko dira.

Zein esperientzia egingo dituzten hautatu

Ikaslearen liburuan esperientzia asko proposatzen dira egiteko. Ikasleek beste informazio iturri batzuetatik eskuratuta izango dituzte hainbat gehiago. Fase honetan erabaki behar da zein esperientzia jasoko diren txostenean, zein taula erantsiko diren... Hori erabakitzeke, ikasleak, denen artean adostutako irizpideei jarraituz, talde txikietan bana daitezke. Komeni da era demokratikoan jokatzeko, eta adostasunak lortzeko, hitz-errotetan ikasitako prozedurak aplikatzea.

Esperimentuak egiteko eta txostena antolatzeke jarraibideak eta erregistroak adostu

Lan monografikoa antolatzen eta egiten joateko, hainbat alderdi hartu beharko dira kontuan.

Informazioa aztertu ahala, koadernoan zenbait testu, eskema, krokis eta marrazki jasoz joan daitezke ikasleak. Hori behin eta berriz azpimarratzen da.

Esperimentuak egin ahala, komeni da erregistroak jasotzeko taulatxoak edo krokisak egitea, eta aurrez erabakitako orri edo koadernoan jasotzea. Horretarako eredu batzuk eskaintzen dira ikaslearen liburuan eta lan-koadernoan. Behin lana eginda, lan-koadernoan eskaintzen diren ereduak edo ikasleek sortutakoak erabiliz, lan monografikorako orria osa daiteke.

Lan-koadernoko 8. eta 9. orrialdeetan, esperimentuak burutzeko **plangintza** proposamen bat egiten da. Proposamen horrek taldeko lanen eta bakarkako **antolaketa**n laguntzen du, zehatz-mehatz esplikatzen baitu, esperimentu bakoitza burutzeko eman beharreko urratsak.

1. URRATSA: PENTSATU

Egoera aztertu, behar den denbora eskainiz azterketari. Ekar ezazu gogora gaiari buruz aurretik dakizuna, eta, bakarka, esperimendu bakoitzean eskatzen zaizunaren arabera, egin beharrekoa nola egin pentsatu. Gero, jaso pentsatu duzuna, idatziz edo marraztuz.

2. URRATSA: AURKEZTU

Taldean **zure ideiak edota proposamenak aurkeztu**, ahalik eta xehetasun gehien emanaz eta egoerak hala eskatzen duenean, erabili beharreko materialak aurreikusiz.

Entzun arretaz beste taldekideen ekarpenak eta balioetsi.

3. URRATSA: ERABAKIAK HARTU

Esperimentua nola egin behar den asmatu behar duzuen kasuetan, **aukeratu** taldeko proposamenen artean zuen ustez **prozedura egokiena**, aukeraketa hori egiteko izan dituzuen **arrazoiak argituz**. Esperimendua egin ondoren, hautatutako proposamena ez bada baliagarria izan, pentsatu beste bide bat eta aukeratu, berriz ere, egokiena iruditzen zaizuen. Gero, jarri bigarren hori ere martxan eta ikusi ea baliagarria den. Eta horrelaxe jarraitu saiakuntzekin, egokia topatu arte.

4. URRATSA: LANEN BANAKETA

Egin taldeko partaideen arteko lan-banaketa.

- **Materialak** eskuratzea guztien eginkizuna izango da, baina txandakaturik egin dezakezue, esperimendu bakoitzean horretarako arduradun bat izendatuz.
- Laborategiko **tresnak erabiltzea, garbitzea eta jasotzea** taldeko bi pertsonaren ardura izan daiteke esperimendu bakoitzean.
- Esperimendu bakoitzean **argazkilari-lanak** egiteko pertsona bat arduratu daiteke, baina prozesua adierazteko argazki esanguratsuenak zein diren guztion artean adostu.

5. URRATSA: EKIN

Esperimentua egiteko hautatutako **prozedura puntuz puntu zehaztea** taldekide guztien artean egitea komeni da.

Datu-bilketa egiteko, esperimendu bakoitzean gutxienez arduradun bat izango da. Nolanahi ere, guztiek egiaztatu beharko duzue jasotako datuak zuzenak diren ala ez.

Guztiek **osatuko dituzue esperimenduen txantiloak** zuen lan monografikoan sartzeko.

6. URRATSA: EBALUATU

Ebaluazioa egiterakoan, bi gauza izan behar dituzu kontuan:

- Talde-lanaren nondik norakoak.
- Esperimenduaren nondik norakoak.

ARRISKUEZ
JABETU, ETA SAIHESTEKO
ARAUAK EZAGUTU ETA
ERRESPECTATU!

Laborategiaren inguruko antolaketa adostu

Proiektu honetan nahitaezkoa da laborategia erabiltzea. Horrek **antolaketa** alderdi hauek ere, kontuan hartzea eskatzen du: laborategia erabiltzeko ordutegia adostea, tresnen hornikuntza ziurtatzea, materialak eskuratzea, laborategiko arauak zein diren jakitea, zereginak banatzea...

Laborategiko eginkizunez jabetzeko eta elkarrizketak bideratzeko, *Kanta-kantari: Begira-begira* eta *Eztabaidan: arauak* izeneko jarduerak proposatzen dira. Laborategian lan egiteko moduz eta segurtasunaz ari da abestia, eta jardueraren azalpenean, laborategirako aholkuak eskaintzen dira. Antolaketa bideratzeko, berriz, lan-koadernoan jarduera batzuk ageri dira. 4.eta 5. orrialdean laborategiko tresnen ezagutza lantzen da, eta 9. orrialdean ardurak banatzeko txantiloia eskaintzen da.



ESPERIMENTUAK TALDE LANEAN: ARDUREN BANAKETARAKO TXANTILOIA	
	ESPERIENTZIA
	Arduradunak:
Materialaren arduraduna(k)	
Prozeduraren sortzailea	
Prozedura aurrera eraman (aplikatu)	
Argazkilaria	
Datu-bilketa eta kontrastea	
Garbitasuna	
Oharrak	
Bestelakoak	

Talde eztabaidak antolatu

Esperimentazioa talde txikietan egitea proposatzen denez, bereziki zaindu beharreko alderdia da elkarrizketako arauak errespetatzea, halaxe dio ikaslearen liburuko 19. orriko jarduerak. Hori kontuan izanik, **elkarrizketa antolatzeko prozedura** lantzen du Txanelak. Eztabaidatzeko arauak zein diren zehazten da, behatzailea izendatzen da, eta haren lana zein den zehazten. Ondoren, taldekideen behaketa eta balorazioa errazteko arauei dagokien irizpide-zerrenda antzeko bat eskaintzen da.

Komeni da behatzaileak talde eztabaidetan informazioa jasotzea. Hona hemen taula:

ELKARRIZKETARAKO ARAUAK	IKASLEAK				
Besteei hitz egiten utzi die, hizketa txanda eten edo oztopatu gabe					
Hitza modu egokian eskatu dio moderatzaileari (eskua altxatuz edo beste keinu batez, baina besteen hizketaldia oztopatu gabe eta arreta galdu gabe).					
Moderatzailearen baimenarekin bakarrik hitz egin du.					
Besteek esandakoak (ideiak, iritziak...) errespetatu ditu.					
Besteen adierazpidea (hitz egiteko modua, keinuak...) errespetatu du.					
BALORAZIOA: O.O = oso ondo, Na = nahikoa, Ga = gaizki					
OHARRAK					

BERRIKUNTZA FASEA: EGITEA

Esperimentuei buruzko hipotesiak egin, frogatu, ondorioak atera eta erregistratu

Zein esperientzia egin, zein informaziotan oinarritu, zein material erabili, zein alderdi kontuan hartu... hori guztia aurreikusi dutenez, esperimentuak **egiteko unea** da. Ez da ahaztu behar proiektu hau esperimentazioan oinarritzen dela, ondorioak eta aurrez egindako hipotesiak alderatu behar direla, eta aurrez erabakitako erregistro orri eta tauletan jaso behar direla datuak.

Esperientzia **egite** une hau proiektutxo bat da bere baitan:

1. Informazioa analizatu eta **hipotesi bat sortu**.
2. Burutzeko **plantxo bat aurreikusi**.
3. Hipotesia zuzena dela frogatzeko, **saiakuntza burutu**. Hala ez bada, behin eta berriz errepikatu behar diren aldaketak eginez .
4. **Datuak jaso eta ondorioak atera**.

Beraz, esan genezake egiten eta ekiten konpetentzia etengabe lantzen dela proiektu honetan.

10. ESPERIMENTUA: Bereiz daiteke ura eta olioaren nahastea?

Materien arteko nahasteak ohikoak dira gure inguruan: hautsa edo lohia euri-urarekin nahasita ikustea nahikoa da horretaz ohartzeko. Egingo dituzun jardueren bidez, esperimentuak eta saiakuntzak bati bat (eta guk jarritako informazioaren laguntza), ikusi behar duzu ea nahasteetako osagaiak berreskura daitezkeen ala ez. Hauxe da, beraz, atal honetako galdera nagusia:

Nahasteetako osagaiak berriz bereiz ote daitezke?

- Jarraitu proposatutako bideari, eta ikusi ea bereizten dituzun nahasteko bi osagaiak. Esperimentuaren helburua txosten bat betetzea da.
- ① Ipin itzazu beirazko ontzi tapadun batean 100 bat cm^3 ur eta beste hainbeste olio.
- ② Irabiatu indar handiz eta ikusi nola geratzen den (hor dugu ura eta olioaren arteko nahastea).
- ③ Eman aspektuari buruzko informazioa, eta ikusi nahastearen propietateak (gardentasuna, kolorea...) bat datozen edo aldatu diren nahasteko osagaien propietateekiko.

... / ...

- ④ Erantzun esperimentua egiteko oinarritzkoa den galderari: zer metodo erabili behar dut bi osagaiak bereizteko?
- ⑤ Egin hipotesiak. Eztabaidatu taldean ea egokiak diren proposatutako hipotesi horiek. Aukeratu zuen ustez egokiena.
- ⑥ Adierazi irudizko eskema batean (esperimentuaren eskema) nola egin esperimentua.
- ⑦ Egin saiakuntza bat hipotesia zuzena dela frogatzeko. Hala ez bada, aukeratu beste bat eta saiatu behin eta berrin, ahalik eta hoberen olio eta ura berriz bereizteko.
- ⑧ Jaso datuak eta ondorioak, esperimentuko saiakuntzak amaitu ondoren.




larduera

1.1 Jarraitu hemen jarritako urratsei, egin esperimentua, eta atera ondorioak.

12. ESPERIMENTUA:
Azukrearen kristalizazioa

Helburua: Esperimentu honen helburua izango da ikustea ea hainbat aldaketa fisikoren ondoren amaierako substantzia hasierako berbera (azukrea) den ala ez.



Materiaia:

- Azukrea
- Ura
- Prezipitatu-ontzia
- Kristalizadorea
- Inabragailua edo malatsa

Nola egin:

- 1 Jani prezipitatu-ontzi batean 200 bat cm^3 ur eta bota hiruzpalau koilarakada handi azukre.
- 2 Disolbatu azukrea uretan malatsa erabiliz. Ura berotzen bada, azukrea errazago disolbatuko da.
- 3 Dastatu disoluzioa (kontuz, beroa dago!) azukrearen zaporea eta gozotasuna dituen jakiteko.
- 4 Ipini disoluzioa kristalizadore batean (zenbat eta hondo zabalagoa izan, orduan eta azkarrago kristalizatuko da azukrea), estali paper batekin eta utzi lurruntzen (negua bada erradiadore baten gainean, eta uda bada eguzki epeletan jartzen baduzu, errazago lurrunduko da).
- 5 Ikusi eta aztertu kristalizadorean geratzen den solidoa.

Galderak:

- Disoluzioan dagoen substantzia azukrea ote da? Zergatik diozu honi?
- Kristalizadorean agertu den solidoa azukrea al da? Zergatik diozu honi?
- Nolakoa da azukrearen aspektua hiru fase (zorrokkoa, disoluziokoa, kristalizadorekoa) horietan?
- Zorroko azukrea eta zuk kristalizadorean lortu duzuna berdin-berdinak al dira? Nolako berdintasunak eta desberdintasunak aipatuko zenituzke?

Ondorioak:

- Zer ondorio aipatuko zenituzke esperimentua egin ondoren?
- Ba al du zerikusirik materiaren aldaketa fisikoekin? Zergatik?

Liburuaren 18. orrian esaten da zein ohar kontuan hartu behar diren esperimentuen txosten zientifikoa idazteko. Hauek ageri dira: esperimentuaren helburua zehaztea, erabiliko den materiala zerrendatzea, esperimentua egiteko den prozedura idaztea, bakoitzak egin dituen neurketen bilduma egitea eta ondorioak idaztea. Horretarako erregistro orri bat ere eskaintzen da.

Nork bere lan monografikoa osatu: materiala bildu eta ordenatu, aurkibidea osatu...

Proiektuko lan astunena eginga dute ikasleek, eta bakoitzak osatutako, behin betiko lan monografiko bihurtzea geratzen da. Txanelak liburuaren 54. orrian proposatzen ditu eman beharreko urratsak.

1- Materiala bildu eta ordenatu

- Bildutako orri guztiei begiratua eman.
- Lanen bat bukatu gabe geratu bada, bukatu, eta erantsi beharreko argazkiak edo marrazkiak erantsi.
- Zerbait gehiago jarri behar den erabaki eta egin.
- Orri guztiak antolatu eta ordenatu.

2-Aurkibidea osatu

- Orrien ordena kontuan hartu eta aurkibidea idatzi.
- Aurkibidea lan monografikoan dagokion lekuan kokatu.

3-Azala osatu

- Izenburua, izen-abizenak, ikasmaila eta data idatzi.

4- Helburua betetzen den aztertu

- Lan monografikoa bukatutakoan, materiari buruz ikasitako guztia ahalik eta modurik argienean adierazten dela ziurtatu.

Azken eginkizun honetan ere ikasle bakoitzak egiten eta ekiten ikasirekin zerikusia duten azpikonpetentzia guztiak jorratzen ditu: **analisia, sormena, berrikuntza eta ebaluazioa.**

BERRIKUNTZA FASEA: KOMUNIKAZIOA

Nork bere iritziak azaldu eta argudiatu, ahoz nahiz idatziz

Proiektu honetan, komunikazioaren atalari dagokionez, elkarren arteko eztabaidetan trebatzeak du garrantzia. Txanelak eskaintzen du aukera, bakoitzak bere iritziak ematen eta defendatzen, eta besteen iritziak entzuten eta ondorioak ateratzen treba daitezen.

Bueltako komikia: Nini artean izeneko jardueran, ikastolako bizikidetzan sortzen diren arazoetan kokatzen dira komikiko gertaera nagusiak, eta elkarriketan oinarrituz, eta irakasleak bideratutako galderez lagunduta, konponbidea bilatzera bultzatzen dira.

Iritzi artikulua. Lagun artean, berriz, komikiak irekitako biderei jarraituz, iritzi artikulua bat idaztea proposatzen da. Horretarako, lan-koadernoko 24-26 orrialdeetako ariketen bitartez iritzi testuen hainbat elementu –egitura, testu-antolatzaileak– eta horiek idazteko estrategiak –ereduen eraldaketa– lantzen dira.

Bertsoz izenekoan, berriz, entzuteko edo irakurtzeko bertsoak proposatzen dira. Ikasleen eginkizuna da bertsolari bakoitzak zein arrazoi edo argudio ematen dituen identifikatzea, eta ondoren, bertso saioari jarraipena ematea. Jarraipen hori txandaka egitea proposatzen da, paperak taldeetan banatuz, eta arrazoi berriak asmatuz eta azalduz. Talde bakoitzak arrazoi berri bat azaltzen duenean, beste taldeari eskatu behar dio erantzuna pentsatu, eztabaidatu eta azaltzeko. Ez da beharrezkoa hori guztia bertsoan egitea, ohiko eztabaida baten moduan ere egin daiteke.

Hiztunak eta hizkuntzak izeneko jardueran, euskaraz hitz egitean sortzen diren okerren inguruko hausnarketa egitea planteatzen da. Erabilera oker horiek zergatik sortzen diren pentsarazten zaie ikasleei, helburu argi batekin: hizkuntza zuzen erabiltzeak zer garrantzi duen jabetu daitezela eta horretarako ahaleginak egiteko jarrera har dezatela. Bestalde, komikiko elkarrizketan oinarrituta, hizkuntzaren sistemaren inguruko hausnarketa ere egiten da, *hitzen deklinabidea* eta *deklinabide atzizki* kontzeptuak azalduz eta landuz –lan-koadernoko ariketak, CD-ROMa–...

Txostenaren aurkezpen argia egin: azala, izenburuak, argazkiak, marrazkiak

Komunikazioaren ikuspegitik garrantzitsua da egindako txostena argia, zuzena, txukuna eta erakargarria izatea. Alderdi hori hobetze aldera, *artelana* jardueran egindako lanei ateratako argazkiak txerta daitezke apaingarri edo gehigarri gisa.

EBALUAZIO FASEA

Lana bakarka balioetsi eta ondorioak atera

Proiektua amaitzean dago. Egindako lanaren inguruan hausnartzea, hobetu beharreko atalak aztertzea eta ondorioak ateratzea geratzen da.

Horretarako, *sintesia* izeneko jardueran, inkesta bat eskaintzen da, lan monografikoa osatzeko egindakoa gogoratu eta baloratzeko; lan-koadernoko 10. orrian, berriz, talde lana ebaluatzeko txantiloia dator. Inkesta horiek egindako lana bakarka balioesteko aukera ematen diote ikasleari. Ondoren, elkarrizketaren bitartez, talde osoak balorazioa egitea proposatzen da.

Bestalde liburuaren 56. eta 57. orrialdean galdera eta egoera batzuk proposatzen dira bakoitzak ikasitakoa aplikatu dezan.

BEHAR DUZUNEAN ERABILTZEKO... IKASITAKOA ETA EGINDAKOA BERRIKUSI



PROIEKTUA gauzatu ahala hainbat zeregin eta alderdi landu dituzu unitate honetan. Balora itzazu egindako lan horiek guztiak.

- ① Lehenik, hausnar ezazu zeregin bakoitzari dagozkion alderdiei edo irizpideei buruz (egoki bete dituzun, hobetu zenitzakeen...), eta denak balioetsi ostean, eman iezaiozu nota edo zenbaki bakar bat zeregin bakoitzari (1, **hobetu beharreko lana**; 2, **nahiko lan ona**; 3, **lan bikaina**).
- ② Gero, adieraz iezaiozu taldeari atalari emandako puntuazioa eta hura emateko jarraitu dituzun irizpideak, unitatean zehar ikasi duzun bezala arrazoituz.

UFA!
HASIAURRETIK, HORKO
ZERRENDAHORIETAKO
HITZEK ZERESANAHI DUTE
ERE ARGITU BEHARKO
DUGU, EZTA?

LABORATEGIKO LANA

- Hipotesiak formulatzea
- Saiakuntzak gauzatzea
- Informazio-bilketa
- Materialen erabilpen egokia
- Talde-lana
- Partaidetza
- Saiakuntzak prestatzea
- Ekin aurretik pentsatzea
- Materiala eskuratzea
- Antolamendua
- Garbitasuna
- ...

LAN MONOGRAFIKOA

- Bildutako informazioaren egokitasuna
- Bildutako txosten zientifikoaren baliagarritasuna
- Aurkezpena
- Antolamendua
- Garbitasuna
- ...

EZTABAIDAK

- Parte-hartzearen prestaketa
- Parte-hartzea
- Elkarriketarako arauak
- Egoki eta zuzen hitz egitea
- Hainbat eginkizun (solaskidea, behatzailea, bozeramalea) egoki betetzea
- ...






ZURE JARRERA ETA JOKABIDEA

- Bakarka egindako lana
- Lanerako gogoia
- Gozamina
- Jakin-mina
- Elkartasuna
- Autonomia, zeure kabuz ekitea

LABORATEGIKOLANARI
DAGOKIONEZ, NIRE USTEZ...
ALDEBATETIK... BAINA BESTETIK...
HORREGATIK, NIK... PUNTU
EMANDIZKIOT

TALDE LANA: ARDURA eta PARTAIDETZA EBALUATZEKO TXANTILOIA		
	ESPERIENTZIA	
	0-10	Azalpena (zure iritzia agertzeko eta argitzeko)
Norberaren ideien aurkezpena		
Besteen ideiak entzutea eta balioestea		
Aurrera eraman beharreko esperimentera hautatzea		
Materialaren arduraduna(k)		
Prozedurak nola izan behar duen asmatzea eta sortzea		
Prozedura aurrera eramatea (aplikatzea)		
Datu-bilketa eta kontrastea		
Argazkilariaren lana		
Garbitasuna		
Oharrak		
Bestelakoak		

10

Eztabaida formalak balioesten

Proiektu honetan eztabaida formalak egitea garrantzizkoa izan da. Hori kontuan izanik, *Eztabaida formalak* izeneko jarduera proposatzen du Txanelak ebaluazioan trebatzeko. Jarduera honetan, talde elkarrizketari eta eztabaidei buruz ikasi dutena eta lortu duten trebetasuna erabiltzea eskatzen zaie ikasleei. Horretarako ohiko debate baten antzekoa prestatuko dute. Ikasleek iritzi edo ikuspuntu pertsonalak ondo finkatu eta zehaztu beharko dituzte, horri erreparatu beharko diote, eta aldeko nahiz kontrako argudioa prestatu beharko dituzte. Eztabaida talde handian antolatzeko eskatzen zaie, elkarlanean nola moldatzen diren ikusteko.



Txanela LH 6-5: "...saiatze horretan ezin gelditu"

SOLASKIDEEN PARTE HARTZEA BEHATU ETA BALORATZEKO FITXA

Behatzailea	Taldekideak →								
Zereginak									
Parte-hartzea prestatu du									OO – O NA – GU
<ul style="list-style-type: none"> - Gaiari buruzko informazioa lortu du. - Iturri bat baino gehiagotatik lortu du informazioa 	<ul style="list-style-type: none"> - Lortutako informazioa gogoratzeko idatziz ekarri du. - Bere iritziak idatziz prestatzen ditu. 								
Parte hartu du									OO – O NA – GU
<ul style="list-style-type: none"> - Besteen hitzak arretaz entzun ditu. - Lortu duen informazioa azaldu du, hori egitea tokatzen zenean. - Bere iritzia azaldu du, hori egitea tokatzen zenean. - Aurrez beste batek esandakoari buruzko bere desadostasuna edo adostasuna azaldu du. 	<ul style="list-style-type: none"> - Iritziak arrazoitu edo justifikatu ditu. - Moderatzaileak behatu edo eskatu dionean bakarrik hitz egin du. - Berak horrela nahi zuelako, bitan baino gehiagotan hartu du hitza. - Beste norbaitek esandakoari buruzko argibide gehiago eskatu ditu. 								
Elkarrizketarako arauak bete ditu									OO – O NA – GU
<ul style="list-style-type: none"> - Besteei hitz egiten utzi die, hizketa-txanda eten edo oztopatu gabe. - Hitza modu egokian eskatu dio moderatzaileari (eskua altxatuz edo beste keinu batez, baina besteen hizketaldia oztopatu gabe eta arreta galdu gabe). 	<ul style="list-style-type: none"> - Moderatzailearen baimenarekin bakarrik hitz egin du. - Besteek esandakoak (ideiak, iritziak...) errespetatu ditu. - Besteen adierazpidea errespetatu du. 								

Proiektuaren faseen balioespena

Komeni da proiektuen faseak ere balioestea. Unitate bakoitzeko proiektua bukatzean egin daitekeen jarduera bat proposatzen da: URTEAN ZEHAR EGINEZ JOANGO DIREN PROIEKTUEN BALORAZIO-GRAFIKOA.

Proiektu guztiak 5 fasetan labur daitezke: ASMATU, PLANIFIKATU, EGIN, KOMUNIKATU eta EBALUATU. Lan guztien amaieran ikasle bakoitzak 1etik 3 arteko puntuazioa emango dio fase bakoitzari. Ikasle guztien puntuak batu ondoren, fase bakoitzaren puntuazioa aterako da, eta grafiko batean jaso. Urtean zehar eginez joango diren proiektuen balioespeneekin, gelan, horma irudi bat osatuz joan daiteke, eta hurrengo proiektuetarako zer hobetu behar den ondorioztatu.

IKASLEA:			
	1	2	3
ANALIZATU ETA SORTU			
PLANIFIKATU			
EGIN			
KOMUNIKATU			
EBALUATU			

Balioetsi fase bakoitza 1etik 3ra

MATERIAREN INGURUKO LAN MONOGRAFIKOA OSATU ETA AURKEZTU					
	ANALIZATU ETA SORTU	PLANIFIKATU	EGIN	KOMUNIKATU	EBALUATU
IKAS 1					
IKAS 2					
IKAS 3					
IKAS 4					
IKAS 5					
IKAS 6					
IKAS 7					
IKAS 8					
IKAS 9					
IKAS10					
IKAS 11					
IKAS 12					
IKAS 13					
IKAS 14					
IKAS 15					
IKAS 16					
IKAS 17					
IKAS 18					
IKAS 19					
IKAS 20					
GUZTIRA					

Hobetu beharreko atalak:

PROIEKTUEN BILAKAERA, UNITATEZ UNITATE

PROIEKTUAREN IZENA:					
	ANALIZATU ETA SORTU	PLANIFIKATU	EGIN	KOMUNIKATU	EBALUATU
1. UNITATEA					
2. UNITATEA					
3. UNITATEA					

4. UNITATEA					
5. UNITATEA					
6. UNITATEA					

Azkenik azpimarratuko dugu *Materiaren inguruko lan monografikoa osatzeko eta aurkezteko* burutu den ekite prozesu honek eragina duela:

- Ikaslearen **esparru pertsonal-indibidualean**, ikasleak ezaugarri pertsonalak identifikatzeko, esperimintatzeko eta garatzeko aukera izan baitu.
- **Natura esparruan** ingurune hurbileko garapen iraunkorreko proiektuak baliosteko ezagutzak eskuratzeko aukera izan duelako.
- **Auto-ikaskuntza esparruan**, norberaren ekimenez, hezkuntza gabeziak aztertze alde batetik, eta bestetik, ezagutza eta trebetasun maila handiagoa lortzeko aukera izan duelako.
- **Bokazioa**. Proiektu honek gozaten dituen arloak identifikatzeko eta bereziki interesatzen zaizkionak garatzeko aukera eman dio ikasleari.

Txanelan ekintzailletza hobetzeko proposatu diren elementu berriak.

Txosten honetan egin dugun azterketan ikus daitekeen bezala, Txanela proiektuak fase guztietarako jarduera sorta zabala proposatzen du.

Txanela proiektuak Lehen Hezkuntza osoan garatzen ari den planteamendu bati erantzuten dio: ikasleek eskolan esperimintatu, ezagutu eta lantzen dutena aplikazio esanguratsu batean gauzatzea. Unitatez unitate eta urtez urte egoera batera edo bestera egokitutako antzeko jarduerak egiten dituzte. Modu honetan, Lehen Hezkuntzaren amaierarako, **konpetentzia ekintzailearekin** zerikusia duten balioak eta prozedura ugari barneratu ahal izango dituzte.

Horrezaz gain, fase batzuk indartze aldera zenbait jarduera eta tresna gehitzea gehitzea proposatzen dugu, batzuk ikasleen proiektu guztietan errepikatuko direnak, beste batzuk, txandaka, proiektu jakinetan erabiltzeko aurkezten direnak, dagokion unitateari egokituz. Hona hemen osatu den zerrenda:

Berrikuntza fasean, planifikazioa indartzeko proposamenak

- ★ *Idea zaparrada*
- ★ Akta eredu
- ★ Lan banaketarako taula
- ★ Saioen aurreikuspenarako taula
- ★ *Ideometroa*
- ★ *Negargarria da film hau*
- ★ *Ohetik eskolara*
- ★ *Erratzik gabe ez dago garbitzerik*

Berrikuntza fasean komunikazioa indartzeko proposamenak

- * Logotipoa
- * Iragarkia
- * Gonbidapena
- * Kartelak
- * Aipamenak

Ebaluazioa eta aplikazioa indartzeko proposamenak

- * Bakarka egindako lanaren balorazioa.
- * Balorazio gurutzatua: batak bestearena.
- * Taldean planifikatutakoaren balorazioa.
- * Proiektuaren faseen balorazioa.
- * Ikuskizunaren balorazioa.

Jarduera horien inguruko zehaztapenak, alde batetik *Hasi eta Haz*" ikasmaterialetatik eskura daitezke eta beste batzuk ondorengo lerroetan ageri dira.

Planifikatzeko unean, hitzez esandakoa idatziz jasotzeko ohitura bultzatzea egokia da, ikasleek proiektuari eskainiko dioten denboraz ohartzeko, eginkizunak gogoratzeko, erantzukizuna hartzera bultzatzeko, berrikusketak egiteko... Horretarako lagungarriak dira akta orriak, lan-banaketarako orriak, saioen aurreikuspenetako taula...

Saioen aurreikuspena

Jarraian ageri den taulan eskaini ditugu proiektua gauzatzeko aurreikus daitezkeen saioak, betiere iradokizun modura. Era honetako taula bat ikasleekin adostuz eta osatuz joateak lagun dezake proiektuaren nondik norakoak errazago aurreikusteko, erabakiak hartzeko unean beharrezko baliabideak eskura izateko, eta erantzukizunak barneratzeko.

Akta orriak

Erabakiak hartzeko egiten diren saioetan, akta orrien erabilera bultzatzea komeni da. Horrela, ikasleak barneratzen joango dira tresna horiek oso lagungarri direla lana antolatzeko, proiektuaren jarraipena egiteko eta ebaluazioa errazteko.

Lan banaketarako taula

Lan banaketarako taulak egokiak dira ikasle bakoitzak bere eginkizunaren ardura hartzeko eta epeez jabetzeko. Taula hauek gelako txoko batean jar daitezke.

Komunikazio fasean komeni da hartzailearengan interesa, arreta eta motibazioa piztea, eta ikasleak ekoiztutako lanak besteengana nola helarazi pentsatzen jartzea. Horretara zuzendutako jarduerak dira, besteak beste, ikastaldea identifikatuko duen **logotipoa** sortzea eta jendaurreko irakurraldiaren inguruko **iragarkiak** edo **kartelak** prestatzea.

Logotipoa

Lehenengo unitatea da garai egokiena taldea identifikatuko duen logotipoa asmatzen hasteko. Ikasleek ezagutzen dituzten logotipoen zerrenda egitea izan daiteke lanketarako lehenengo pausoa: Txanelakoa, ikastolarena, zenbait kirol talderena... Horietatik abiatuz, eta itxura, elementuak, ezaugarriak, eginkizuna...

aztertu ondoren, taldea ongien identifikatuko duen irudia zein den erabakitzeko proposamenak sortuko dira. Azkenik, ikasle guztien artean adostutakoa aukera daiteke. Behin logotipoa egin ondoren, urtean zehar egingo diren beste proiektuetan erabil daiteke.

Iragarkia

Beste jarduera bat iragarkiak edo kartelak egitea izan daiteke. Hasieran, iragarkien inguruko lanketa egin daiteke, motak aztertuz, interesa pizteko zenbait teknika aurkeztuz, irudiek eta letra motek zer garrantzi duten gogoraraziz, eta abar. Iragarki moduan bertsoak, iragarkiak, asmakizunak, hieroglifoak... egitea ere proposa daiteke, gero ikastetxeko hormetan itsasteko edota eskolako irratan emateko. Irrati, megafonia-sistemak, IKTak tresna egokiak dira iragarkiak zabaltzeko.



AKTA ORRIA

PROIEKTUAREN IZENA:

AKTA Zb. DATA:

PARTE HARTZAILEAK:

EGINDAKOA:

1

SAIOEN AURREIKUSPEN TAULA

PROIEKTUAREN IZENA:

SAIOA/ DENBORA	EGINKIZUNA	BALIABIDEAK	ARDURADUNAK

3-1 Proiektua: HERRIKO ZERBITZUEN HORMA IRUDIA OSATU ETA IKASLE TXIKIAGOEI AURKEZTU

Proiektuaren helburua

Ikasleen proiektuaren helburua hauxe da: herriaren inguruko informazioa ikasle txikiagoi aurkeztea; horretarako, zerbitzuen horma irudia aurkeztuko dute eta agerraldi sortzailea eskainiko dute.

Prozedura esanguratsuenak*

Proiektu honetako prozedura esanguratsuenak hauexek dira (proiektu-faseen arabera sailkatuta eta ordenatuta):

Asmatze fasea

- * Herriaren inguruko ezagutzak martxan jarri eta proiektua proposatu.
- * Herriko planoko elementu nagusiak zein diren aztertu eta ezagutu.
- * Herriko auzoak, zerbitzuak, parkeak... irteera baten bidez ezagutu eta informazioa bildu eta sailkatu.
- * Herriko kirol eta kultur ekintzak bildu.
- * Herrian edo hirian ibiltzeko arauak zein diren aztertu eta horiek bildu.

Erabakiak hartzen hasteko fasea

- * Horma-irudiaren edukiak adostu.
- * Lana egiteko prozedura erabaki: bakarka egin beharreko jarduerak, taldean adostu beharrekoak, horma-irudia osatzeko banaketa...
- * Agerraldian zer eskainiko duten erabaki (bertsoak, azalpenak, mapak, arauak, artelanak...), noiz izango den, non...
- * Zer baliabide beharko dituzten aurreikusi..
- * Denbora antolatu.
- * Taldea kohesionatu.

Ideiak gauzatzea

- * Norberaren herria Euskal Herriko mapan kokatu.
- * Zerbitzuen panela osatu.
- * Herriko planoan, zerbitzuak zeinuen bidez adierazi.
- * Herriko kirol eta kultura fitxak osatu.
- * Horma irudia osatu.
- * Agerraldiko ekintzak prestatu.
- * Agerraldirako entseguak egin.

Komunikazioa

- * Ekitaldirako gonbidapena idatzi eta ikasle txikiagoi helarazi.
- * Euskararen egokitasuna eta zuzentasuna landu, eta erabilera bultzatu.

Ebaluazioa:

- * Egindako lana bakarka balioetsi eta ondorioak atera.
- * Elkarriketa baten bidez, egindako lana balioetsi: prozesua, aurkezpena, planifikazioa, gogoia, gozamina, zailtasunak...

* Fase bakoitzeko prozedurak ez dira nahitaez era linealean egin behar, bata bestearen atzetik; zenbaitetan, lehenengo planifikatu eta ondoren asmatze-faseko jarduerak egin beharko dira, edo egin ahala ebaluatu. Faseka ordenatu

badugu, ez da izan horri estu-estu lotzeko, baizik eta ikuspegi osoa islatzeko eta guztien lotura eta garrantzia nabarmentzeko.



ZERGATIK EZ DUGU HERRIA AZTERTZEN EIA HERRIAK HERRITARROI ESKAINTZEN DIZKIGUN ZERBITZUEI BURUZ INFORMAZIOA BILTZEN?

ETA IKASITAKO GAUZA BATZUK HAUR TYKIEI KONTATZEN BADIZKIEGU? HAJEI ERE ONDO ETORRIKO ZATE HERRIA EZAGUTZEA?

Egin honako urrats hauek, proiektua gauzatzen joango zara horrela:

- Lehenik eta behin, kokatu norberaren herria Euskal Herriko mapan.
- Gero, eskuratu herriko plana eta aztertu planoko elementu nagusiak.
- Ondoren, egin herria ezagutzeko irteera bat, aztertu puntu hauek arreta bereziz:
 - Herriko auzoak.
 - Auzo bakoitzean dauden zerbitzuei buruzko informazioa.
 - Norberaren "Txoko Kuttuna".
- Bukatzeko, antolatu bildutako informazio guztia txukun-txukun, eta egin horma-irudiak jasotako irudiekin eta datuekin.

Prozeduren, jardueren eta gaitasunen taula

Ondoren ageri den taulan jaso ditugu proiektu-fase bakoitzean egiten diren prozedurak, horiek garatzeko Txanelak eta Hasi eta Hazi proiektuek eskaintzen dituzten jarduerak eta lanketa honetan sustatzen diren gaitasunak.

3-1 HERRIKO ZERBITZUEN HORMA IRUDIA OSATU ETA IKASLE TXIKIAGOEI AURKEZTU			
FASEA	PROZEDURAK	GAITASUNAK	JARDUERAK
ASMATU	Herriaren inguruko ezagutzak martxan jarri eta proiektua proposatu.	Analisirako gaitasuna Pentsamendu kritikoa Eztabaidarako gaitasuna Autoestimua Ahozko komunikazioa	G3.1u, 5.j. / <i>Azalaren behaketa eta elkarrizketa</i> G3.1u, 6.j./ <i>Komikia</i> G3.1u, 18.j./ <i>Abestia: "bazter guztiei begira"</i> G3.1u, 8.j./ <i>Aurrezagutzak</i> G3.1u,9.j./ <i>Proiektuaren aurkezpena.</i> G3.1u, 11.j./ <i>Txoko Zuria.</i> Saioen aurreikuspen taula.
	Herriko planoko elementu nagusiak zein diren aztertu eta ezagutu.	Analisirako gaitasuna Pentsamendu kritikoa Eztabaidarako gaitasuna Autoestimua Ahozko komunikazioa Idatzizko komunikazioa Elkarlana	G3.1u,24.j./ <i>Gu ere labirintoak eraikitzen. Planoa</i> G3.1u, 25.j./ <i>Irudimenezko planoak</i> G3.1u, 29.j./ <i>Herriaren egitura. Planoa</i> G3.1u, 33.j./ <i>Gure herriko/hiriko planoak.</i> Interneteko baliabideak eta herriko planoak.
	Herriko auzoak, zerbitzuak, parkeak... ezagutu eta informazioa bildu.	Analisirako gaitasuna Pentsamendu kritikoa Eztabaidarako gaitasuna Autoestimua Ahozko komunikazioa Idatzizko komunikazioa Elkarlana	G3.1u, 26.j./ <i>Herriaren kokalekua</i> G3.1u, 27.j./ <i>Abestia. "Zazpi Euskal Herriak"</i> G3.1u, 34.j./ <i>Auzoak</i> G3.1u, 39.j./ <i>Auzo motak</i> G3.1u, 42.j./ <i>Irteera eta bide heziketa</i> G3.1u, 43.j./ <i>DVDa "Txoko kuttuna"</i> G3.1u, 44.j./ <i>Irteera</i> G3.1u, 45.j./ <i>Zerbitzuak Informazio bilketa orria</i>
	Herriko kirol eta kultur ekintzak bildu.	Analisirako gaitasuna Sormena Pentsamendu kritikoa Eztabaidarako gaitasuna Ahozko komunikazioa	G3.1u, 47.j./ <i>Aisialdia. Kirola eta kultura</i> G3.1u, 48.j./ <i>Kultur etxeko erakusketak</i> G3.1u, 56.j./ <i>Auzoetako jaiak</i> G3.1u, 57.j./ <i>Bertsokak</i> G3.1u, 58.j./ <i>Lazkao Txikiren pasadizoak</i>

	Herrian edo hirian ibiltzeko arauak zein diren aztertu eta horiek bildu.	Analisirako gaitasuna Pentsamendu kritikoa Ahozko komunikazioa Idatzizko komunikazioa Eztabaidarako gaitasuna Gatazkak konpontzea	G3.1u, 61.j./Iritzi-errota G3.1u, 64.j./Iritzi-errota <i>prozedura</i> G3.1u, 65.j./Herriko plazan “olerkia”
PLANIFIKA TU	Horma-irudiaren edukiak adostu.	Ahozko komunikazioa Idatzizko komunikazioa Elkarlana Eztabaidarako gaitasuna Erabakiak hartzea Parte-hartze demokratikoa Ekimena Autoestimua Gatazkak konpontzea	G3.1u, 9.j./Proiektuaren <i>aurkezpena</i> <i>Liburua 7 orria</i> Akta orria Saoien aurreikuspen taula.
	Lana egiteko prozedura erabaki: bakarka egin beharreko jarduerak, taldean adostu beharrekoak, horma irudia osatzeko banaketa...	Ahozko komunikazioa Idatzizko komunikazioa Elkarlana Eztabaidarako gaitasuna Erabakiak hartzea Parte-hartze demokratikoa Ekimena Gatazkak konpontzea Nork bere burua onartzea	Akta orria Lan banaketarako taula Liburua 41. orria
	Agerraldian zer eskainiko duten erabaki (bertsoak, azalpenak, mapak, arauak, artelanak...), noiz izango den, non....	Ahozko komunikazioa Idatzizko komunikazioa Elkarlana Eztabaidarako gaitasuna Erabakiak hartzea Ekimena Autoestimua Gatazkak konpontzea	
	Zer baliabide beharko dituzten aurreikusi.	Analisirako gaitasuna Ahozko komunikazioa Elkarlana Hobetu nahia	<i>Erratzik gabe ez dago garbitzerik</i> Hasi eta Hazi.
	Denbora antolatu.	Analisirako gaitasuna Eztabaidarako gaitasuna Elkarlana Diziplina Hobetu nahia	<i>Ohetik eskolara,</i> Hasi eta Hazi
	Irteera planifikatu	Ahozko komunikazioa Idatzizko komunikazioa Analisirako gaitasuna Eztabaidarako gaitasuna Elkarlana Diziplina Gatazkak konpontzea	G3.1u, 44j./ <i>Irteera Informazio bilketa</i> orria
	Taldea kohesionatu	Ahozko komunikazioa Gorputzaren bidezko komunikazioa Elkarlana Eztabaidarako gaitasuna Autoestimua	G3.1u, 1j./ <i>Zer moduz aspaldiko neska eta mutiko!</i> G3.1u,7.j./ <i>Olerkia</i> G3.1u, 13.j./ <i>Elkartasun jolasa</i> G3.1u, 60.j./ <i>Entzunaldia</i>

EGIN	Norberaren herria Euskal Herriko mapan kokatu.	Ekimena Borondatea Konstantzia Autonomia Idatzizko komunikazioa Elkarlana Autoestimua	G3.1u, 28.j./ <i>Herriaren kokalekua</i>
	Norbere herriko marrazkia edo artelana egin.	Sormena Ekimena Borondatea Konstantzia Autonomia Autoestimua	G3.1u, 22.j./ <i>Artelanak</i>
	Zerbitzuen panela osatu eta herriko planoan zeinuen bidez adierazi	Sormena Ekimena Borondatea (Lanarekiko jarrera positiboa) Konstantzia Autonomia	G3.1u, 45.j./ <i>Zerbitzuak</i> G3.1u, 33.j./ <i>Gure herriko/hiriko plano</i>
	Herriko kirol eta kultura fitxak osatu.	Sormena Ekimena Borondatea Konstantzia Autonomia Idatzizko komunikazioa Ahozko komunikazioa	G3.1u, 47.j./ <i>Aisialdia:kirola eta kultura</i>
	Horma irudia osatu.	Sormena Ekimena Borondatea Elkarlana Erantzukizuna Hobetu nahia	G3.1u,9.j./ <i>Proiektuaren aurkezpena.</i>
	Agerraldiko ekintzak prestatu.	Idatzizko komunikazioa Ahozko komunikazioa Erantzukizuna	Liburua 39. orria G3.1u, 66.j./ <i>Maidarren txoko kuttuna</i> G3.1u, 67tik 73 arte.j./ <i>Txoko kuttunaren deskribapena</i> Lan-koaderno 13tik 18ra / <i>Txoko kuttunaren deskribapena</i>
	Agerraldirako entseguak egin.	Borondatea Analisirako gaitasuna Hobetu nahia Okerrak onartzen ikastea Ikasi eta aldatu nahia	G3.1u, 50.j./ <i>Bueltako komikia</i>
KOMUNIKATU	Euskararen egokitasuna eta zuzentasuna landu, eta erabilera bultzatu.	Ahozko komunikazioa Idatzizko komunikazioa Autoestimua Borondatea Hobetu nahia	G3.1u, 62.j./ <i>Kausazko esaldiak</i> Lan-koaderno 11-12 or. G3.1u, 63.j./ <i>CD-ROMa (kausazko esaldiak)</i> <i>Liburua 19 eta 37. orriak</i>
	Ekitaldirako gonbidapena idatzi eta ikasle txikiagoei helarazi.	Sormena Ahozko komunikazioa Idatzizko komunikazioa Elkarlana Erantzukizuna	<i>Liburua 41.</i> <i>Ez duzu horrelakorik aurkituko, Hasi eta Hazi</i>

EBALUATU	Egindako lana bakarka balioetsi eta ondorioak atera.	Borondatea Analisirako gaitasuna Hobetu nahia Okerrak onartzen ikastea Ikasi eta aldatu nahia	
-----------------	--	---	--

Faseen deskribapena

Txanela proiektuko 3. mailako 1 unitate didaktikoaren gaia **herria** da. Ikasleek beren herri edo hiria -edo ikastola kokatua dagoena- bertatik bertara aztertzen dute: kokapena, osaera, antolamendua, zerbitzu eskaintza, festak... Herriko zerbitzu eskaintzei buruzko informazioa bildu eta landu ondoren, horma irudiak egitea eta txikiagoei agerraldi batean adieraztea proposatzen da. Horixe da proiektua.

Proiektu hori egokia da konpetentzia ekintzailea garatzeko. Sormena, ekimen pertsonala, elkarlana, arazoak konpontzeko gaitasuna, arriskuen onarpena, erantzukizuna, autokonfiantza eta antzeko balioak lantzeko aukera ematen du.



18. orrialdeko planoak lagun duzula, osa itzazu honako zerrenda hauek. Zerrenda bakoitzaren ideia nagusia goialdean idatzita dago.

<p>Auzoak</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>	<p>Plazak</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>
<p>Parkeak</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>	<p>Herriko zerbitzuak</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>






Maila honetako ikasleak gai dira herria, beren gertuko errealitatea aztertzen hasteko. Jadanik badute gutxieneko autonomia bat, eta herriaren inguruko esperientzia ugari jasoz doaz. Horretaz baliatuz, proiektua antolatzeko eta gauzatzeko bidean jartzea komeni da, eta Txanelako unitate honek aukera hori eskaintzen du.

II. zikloko lan honetan (3. eta 4. mailak), ekintzailatza ikuspegitik egindako prozedura esanguratsuenen sailkapena eskaintzen dugu, ASMATU, PLANIFIKATU, EGIN, KOMUNIKATU eta EBALUATU eskemari jarraituz. Prozedura horiek garatzeko

Txanelak proposatzen dituen jarduerak taula batean bildu ditugu. Jarduera horien deskribapenak unitatearen gidan daude.

Horrez gain, ICTren erabilera bultzatzeko eta antolaketa eta kudeaketa erraztu eta osatzeko tresnak proposatzen dira. Hona hemen horien azalpena.

Interneteko baliabideen erabilera eta herriko plana.

Asmatze fasean jarduera ugari egiten dira herriaren ezagutzan sakontzeko. Baina Txanelako proiektu hau diseinatu zenean, ICTko baliabideen inguruko erabilera ez zegoen hain hedatua, eta horrexegatik ez dago aipamenik tresna horien erabileraz. Gaur egun, ikasleak planoen ezagutzaz eta helburuaz hobeto jabetzeko, helbide interesgarri ugari daude Interneten. Besteak beste, hauek aipatuko genituzke: www.google.es/maps eta www.nekar.com/es/

3. mailako ikasleak plana lantzen has daitezten, www.nekar.com/es/ orrira joatea proposatzen da, eta jolas moduan deskubritzea herriko plana nolakoa den, zerbitzuak nola banatzen dituzten, zein ikur erabiltzen diren... Jolas bat baino gehiago egin daitezke:

- Ikasle bakoitzak bere etxea, auzoa, parkeak, zerbitzuak ... kokatzea.
- Ibilbideak ahoz deskribatzea (etxetik ikastolarakoa, etxetik zinemarakoa).
- Batak besteari arrastoak emanez, zein lekuri buruz ari den asmatzea.
-

Behin planoan jolastu ondoren, herria ezagutzeko irteera egitea komeni da. Ikasleak taldeka banatuta (binaka? hirunaka?), eginkizun batzuk eraman ditzakete plana lantzen joateko: herriaren mugak zein diren idaztea, zer ibilbide egin duten azpimarratzea, hainbat zerbitzu ikurren bidez adieraztea, zerbitzuak eta kaleen izenak edo helbideak lotzea, herriko txoko kuttuna zein den zehaztea...

Irteera egin eta gero, berriro Internetera jotzea komeni da. www.google.es/maps helbidea erabiliz, ikasleek egiaz bizi izan dutenaren eta orri honek eskaintzen dituen planoen arteko lotura egin daiteke, sateliteko irudiak eskaintzen baitituzte.

Aprobetxa daiteke ezagutzen dituzten beste herri batzuen planoak ikusteko ere.

Lanketa horiek planoaren inguruko ezagutzan eta erabileran trebatzeko aukera eskaintzen diete ikasleei.

Saioen aurreikuspena

Planifikatzeko unean, hitzez esandakoa idatziz jasotzeko ohitura bultzatzea egokia da, ikasleek eginkizunak gogoratzeko, erantzukizuna hartzera bultzatzeko, berrikusketak egiteko... Lanak sistematikoki antolatzeko, ezinbestekoa da baliabide egokiak edukitzea. Horretarako, lagungarriak dira honako hauek: akta orriak, lan banaketarako orriak, saioen aurreikuspen taula...

Jarrian ageri den taulan, **egiten** eta **ekiten** deitu ditugun konpetenziaren lanketa sistematizatzen laguntzeko aurreikusi daitezkeen saioak jarri ditugu, betiere iradokizun modura. Era honetako taula bat ikasleekin adostuz eta osatuz joateak lagun dezake proiektuaren nondik norakoak errazago aurreikusteko, erabakiak hartzeko unean beharrezko baliabideak eskura izateko, eta erantzukizunak barneratzeko.

SAIOA	EGINKIZUNA	EGINKIZUNAK SISTEMATIZATZEN LAGUNTZEKO BALIABIDEAK	ARDURADUNAK
	Horma irudiaren inguruko erabakiak adostea.	Akta orria. Lan banaketarako taula.	
	Horma irudia osatzeko egin diren lanak talde osoan berrikustea.	Egindako jarduerak	
	Agerraldiaren inguruko erabakiak adostea.	Akta orria. Lan banaketarako taula.	
	Aurkeztu beharreko arauak prestatzea.	Arauen inguruko jarduerak	
	Agerraldiaren entsegua egitea.	Erabakitako eginkizunak	
	Proiektua balioestea	Ebaluazioa tresnak	

Akta orriak

Erabakiak hartzeko egiten diren saioetan, akta orrien erabilera bultzatzea komeni da. Horrela, ikasleak barneratzen joango dira tresna horiek oso lagungarri direla lana antolatzeko, proiektuaren jarraipena egiteko eta ebaluazioa errazteko.

Hona hemen akta eredu batzuk, guk asmatuak.

AKTA ORRIA: HORMA IRUDIAREN INGURUKO ERABAKIAK ADOSTEN	
AKTA Zb.	DATA:
PARTE-HARTZAILEAK:	
EGINDAKOA: Horma irudia osatzeko zer lan egin behar ditugun erabaki dugu. Hauexek dira: <ul style="list-style-type: none"> • Euskal Herriko mapa batean herria kokatzea. • Herriko plano eskuratzea, auzoak kolorez bereiztea eta zerbitzu batzuk ikono bidez adieraztea. • Txoko kuttunen argazkiak biltzea horma irudian kokatzeko. • Herriari buruzko marrazki edo artelana egitea. 	

AKTA ORRIA: HORMA IRUDIAREN INGURUKO ERABAKIAK ADOSTEN	
AKTA Zb.	DATA:
PARTE-HARTZAILEAK:	
<p>EGINDAKOA:</p> <p>Agerraldia 2. mailakoei eskaintzea adostu dugu. Horma irudia azalpenak emateko erabiliko dugu.</p> <p>Agerraldian egin beharrekoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aurkezpena eta bukaera antolatzea, kontuan hartuz ikasitako abestiak, asmatutako bertsoak... • Herriaren inguruko azalpenak ematea. • Txikiei interesatuko zaizkien zerbitzuen berri ematea (parkeak, kiroldegia...). • Kanean ibiltzeko zer arau bete behar diren aurkeztea. • Herriko txoko kuttunen bat deskribatzea. • Ekitaldirako gonbidapena idaztea eta txikiei helaraztea <p>.....</p> <p>.....</p>	



Zergatik uste duzu esan duela hori Xarpak?



Idatzi herrira edo hirira irteera egitean gogoan izan beharko dituzun arauak.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....



Egokia litzateke txikiel arau horien berri ematea!

Lan banaketarako taula

Lan banaketarako taulak egokiak dira ikasle bakoitzak bere eginkizunaren ardura hartzeko eta epeez jabetzeko. Taula hauek gelako txoko batean jar daitezke.

EGINKIZUNA	EPEA	ARDURADUNAK
Euskal herriko mapa batean herria kokatzea.		
Herriko planoak eskuratzea, auzoak kolorez bereiztea eta zerbitzu batzuk ikono bidez adieraztea.		
Txoko kuttunen argazkiak biltzea horma irudian kokatzeko.		
Herriari buruzko marrazki edo artelana egitea.		

EGINKIZUNA	EPEA	ARDURADUNAK
Aurkezpena eta bukaera antolatzea.		
Herriaren inguruko azalpenak ematea.		
Txikiei interesatuko zaizkien zerbitzuen berri ematea (parkeak, kiroldegia...).		
Kalean ibiltzeko zer arau bete behar diren aurkeztea.		
Herriko txoko kuttunen bat deskribatzea.		
Ekitaldirako gonbidapena idaztea eta txikiei helaraztea		

Irteera egiterakoan edo taldetxotan banatuta eskolaz kanpo informazioa biltzen joateko, honako orria erabil daiteke.

Informazio bilketarako orria

AUZOA:	
ZERBITZUA	ESKAINZA
Farmazia - - - - -	sendagaiak
AUZOA:	
ZERBITZUA	ESKAINZA
-Kultur etxea -Dendak (ugari) - - -	Pintura eskola, musika-eskola, liburutegia,.. Janariak, arropak,
AUZOA:	
ZERBITZUA	ESKAINZA
-Ikastola - - -	



Agerraldia prestatzeko, urrats hauei jarrai diezaiekezu:

- 1 Adostu norentzat egingo duzuen agerraldia.
- 2 Bildu denak eta erabaki lan guztietatik (ipuina, bertsoa, planoak, mapak, azalpen-testutxoak...) zein diren txikiei agertzeko egokienak, horien adina eta izaera kontuan izanik.
- 3 Banatu agerraldia egiteko lanak eta ardurak.
- 4 Zehaztu ekitaldiaren ordua eta eguna.
- 5 Idatzi ekitaldirako gonbidapena eta helarazi txikiei.

ZORTE ON,
MARIA ANTON!



AGERRALDIAREN INGURUKO ERABAKIAK ADOSTEN

AKTA Zb. DATA:

PARTE-HARTZAILEAK:

EGINDAKOA:

Agerraldia 2. mailakoei eskaintzea adostu dugu. Horma irudia azalpenak emateko erabiliko dugu.

Agerraldian egin beharrekoak:

- Aurkezpena eta bukaera antolatzea, kontuan hartuz ikasitako abestiak, asmatutako bertsoak...
 - Herriaren inguruko azalpenak ematea.
 - Txikiei interesatuko zaizkien zerbitzuen berri ematea (parkeak, kiroldegia...).
 - Kanean ibiltzeko zer arau bete behar diren aurkeztea.
 - Herriko txoko kuttunen bat deskribatzea.
 - Ekitaldirako gonbidapena idaztea eta txikiei helaraztea
-
-

EGINKIZUNA	EPEA	ARDURADUNAK
Aurkezpena eta bukaera antolatzea.		
Herriaren inguruko azalpenak ematea.		
Txikiei interesatuko zaizkien zerbitzuen berri ematea (parkeak, kiroldegia...).		
Kanean ibiltzeko zer arau bete behar diren aurkeztea.		
Herriko txoko kuttunen bat deskribatzea.		
Ekitaldirako gonbidapena idaztea eta txikiei helaraztea		

TALDEA	TALDEA	TALDEA	TALDEA	TALDEA
Aurkezpena eta bukaera	Herriaren inguruko azalpenak	Zerbitzuen inguruko azalpenak	Txoko kuttunen deskribapenak	Gonbidapenak idatzi eta banatu

AURKEZPENAREN GIDOIA

SARRERA



Azaldu edo aurkeztu nahi den edukiaren arabera, hainbat eratako ahozko azalpenak egin daitezke, baina guztietan badira kontuan izan beharreko hiru une edo atal:

1. **Sarrera:** Entzuleei hasierako agurra egin ondoren, entzungo dutenaren berri adierazten zaie labur, gaiarekiko interesa sortu eta hobeto uler dezaten.
2. **Garapena:** Gaiari heldu eta ahozko azalpena egiten da zati honetan. Azalpena errazago uler dadin, edo horren osagarri, irudi, eskema, grafiko edo bestelako infograma batzuk erabil daitezke.
3. **Amaiera:** Galderen eta azken agurraren unea da. Entzuleei galderak egiteko gonbita egiten zaie, ongi ulertu ez dituzten azalpenak argitzeko. Gero, eskerrak eman eta entzuleak agurtzen dira.

123

Jarrai iezaeizu urrats hauei zure aurkezpeneko **sarrera** prestatzeko:

1. Asma ezazu aurkezpena hasteko agurra, eta idatz ezazu. Ez bazaizu ezer otutzen, aukera ezazu hemen behean dituzunetatik bat.

Ongi etorri Arratsalde on Egun on Kaixo, denoi, eta ongi etorri...

2. Idatz ezazu, labur, zer gai aurkeztuko duzun, eta aurkezpenaren ideia nagusia. Honelako hitzak erabil ditzakezu:

...deskribatuko dizuet azalduko dizuet ...egingo dut eta horretarako...

...ahaleginduko naiz saiatuko naiz

Sarrera

•

.....

.....

•

.....


.....

.....

- ▶ Idatz ezazu berriro zure "Txoko kuttuna"-ren deskribapena, orain arte ikasitako guztia aplikatuz. Idazten duzuna kontrolatzeko, beheko oharrean jartzen dizugun zerrenda har dezakezu oinarri.

Txoko kuttunaren deskribapena egiteko *KONTROL-ZERREDA*:

- non dagoen.
- zergatik duzun kuttuna.
- zer dagoen eta zer egiten duzun toki horretan.



- ▶ Orain aldera ezazu deskribapen berria lehen egindakoarekin. Hobekuntzarik ikusten al duzu?

▶ Zure herriari buruzko bertso dotorea osatzeko, lehenbizi, aukera ezazu lehenengo esaldia zure herriaren izenak duen silaba kopuruaren arabera (kontuan hartu guztira 7 silaba behar ditugula). Ondoren, ordenatu zakuan dituzun esaldiak, eta abestu, aukeratutako doinuarekin.

..... naiz

Fruitz ingurukoa naiz	(silaba bateko herriekin)
Zarautz herrikoa naiz	(2 silabako herriekin)
Zornotzan jaioa naiz	(3 silabakoekin)
Larrabetzukoa naiz / Larrabetzuarra naiz	(4 silabakoekin)
Astigarragarra naiz	(5 silabakoekin)



Doinua: Dama gazte xarmant bat
Bordaxuriren kantua
Xarmegarria zira
Iturengo arotza
Astoa ikusi nuen

10

BUKAERA

126

Azalpenaren ostean, aurkezpenaren amaiera letorke. Presta ezazu hori ere, hemen beheko urratsei jarraituz:

1. Entzuleei galderak egin ditzaten gonbita egiteko, prestatu aukerako esaldi batzuk eta idatz itzazu hemen behean. *Adibidez:*
Zerbait argi geratu ez bada, orain duzue galderak egiteko unea...
2. Prestatu eskerrak eman eta agur esateko aukerako esaldiak, eta idatz itzazu horiek ere. *Adibidez:*
Eta honekin, azalpena bukatutzat emango dut...

Amaiera

•

.....

.....

•

.....

.....



- ▶ Prestatze-lanarekin jarraituz, binaka elkartu eta bata besteari aurkezpena oso-osorik egin beharko diozue. Batek aurkezpena egiten duen bitartean, besteak entzun egingo du, eta, bukatzean, bestearen lana baloratuko du (zer den bere ustez ondo egin duena eta zer gaizki egin duena) eta horren berri emango dio. Gero, bien artean aurkezpena hobetzeko estrategiak bilatuko dituzue.

Horrelako entseguek aurkezpenean izan ditzakezun zailtasunak aurreikusten eta horiei aurre egiteko bideak bilatzen laguntzen dute. Zure aurkezpenean hainbat gauza azaltzeko zailtasunak izan badituzu, landareen ugalketa-zikloari buruz esan nahi duzuna orri batean idaztea lagungarri gerta dakizuke. Idatzitako testu hori bizpahiru aldiz irakurtzeak, baita adierazteko zailak diren esaldiak azpimarratzeak eta ikasteak ere, ahoz adierazi behar duzun edukia barneratzen lagunduko dizu.

Hasi eta hazi

Hasi eta Hazi ikasmaterialetan ekintzailtza indartzeko jarduera ugari eskaintzen dira. *Ohetik eskolara eta Erratzik gabe ez dago garbitzerik* izenekoak egokiak dira denboraren eta baliabideen kudeaketak zer garrantzi duten hausnartzeko; *Ez duzu horrelakorik aurkituko* izenekoan, berriz, gonbita egiteko orduan zeri erreparatu behar zaion esaten da.

Ebaluazioa

2. mailako ikasleentzat herriaren horma irudia osatzea eta agerraldi batean aurkeztea izan da proiektu honen helburua. Aurrera joan den neurrian, ikasleek berrikusketak egin behar izan dituzte, horma irudia amaitzerakoan, agerraldiaren entseguan... Honelako proiektuetan talde elkarrizketak konstante bat dira prozesu osoan zehar. Planifikazio unean elkarrizketetan kontuan hartu beharreko atalak adostea gomendatzen da. Arauak adostu eta gero, ikasleen arteko koebaluazioa bultzatu daiteke.

Gainera, proiektuaren bukaeran interesgarria da ikasleak lanaren hausnarketa eta balioespena egitea, eta era eraikitzaile batean balioestea edo kritikatzeta: zer lan egin duten, zer gogo jarri duten, zerk gozarazi dien, zer arazo sortu zaizkien...

Hausnarketa galdera hauen inguruan egin daiteke:

Ikasleak bakarka erantzuteko

- Zein lan egin duzu horma irudia osatzeko?.....
- Lan hori (ongi – erdizka - gaizki) egin dut. (biribildu aukera).
- Agerraldian (lasai - gustura – urduri – lotsatuta) sentitu naiz.(biribildu aukera).
- Hurrengo batean zer egin dezaket hobeto?

Taldean eztabaidatzeko

- Taldeko lan guztiak giro onean egin dituzue?
- Arazoren bat sortu denean, zer egin duzue?

BAKARKAKO BALORAZIOA (borobildu edo osatu erantzuna)				
Agerraldian egin dudana	<i>bikain</i>	<i>ongi</i>	<i>hobetu beharra</i>	
Agerraldian sentitu naiz	<i>lasai</i>	<i>gustura</i>	<i>urduri</i>	<i>lotsatuta</i>
Hurrengo aurkezpenean kontuan hartu behar dut.				

KOEALUAZIOA					
ELKARRIZKETARAKO ARAUAK					
Besteei hitz egiten utzi die, hizketa txanda eten edo oztopatu gabe.					
Hitza modu egokian eskatu dio moderatzaileari (eskua altxatuz edo beste keinu batez, baina beste hizketaldia oztopatu gabe eta arreta galdu gabe).					
Moderatzailearen baimenarekin bakarrik hitz egin du.					
Besteek esandakoak (ideiak, iritziak...) errespetatu ditu.					
Besteen adierazpidea (hitz egiteko modua, keinuak...) errespetatu du.					
BALORAZIOA: *** = Bikain, ** = Ongi, * = Hobetu beharra					
OHARRAK					

ENTZULEEN IRITZIA (borobildu edo osatu erantzuna)				
Agerraldian egin den lana	bikain	ongi	hobetu beharra	
Agerraldian sentitu naiz	lasai	gustura	urduri	lotsatuta
Hurrengo aurkezpenean kontuan hartu behar da.				

